Bestelako Xedapenak

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

6495

EBAZPENA, 2008ko apirilaren 30ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, Arcelormittal Zumarraga SAri ingurumen-baimen bateratua ematen diona, Zumarraga, Urretxu eta Legazpiko (Gipuzkoa) udalerrietan trefilaketa, hotzeko ijezketa eta forjarako alanbroiak eta altzairuzko barrak fabrika ditzan.

AURREKARIAK

2006ko urriaren 31n, Arcelor Zumarraga SA enpresak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Zumarraga, Urretxu eta Legazpiko (Gipuzkoa) udalerrietan trefilaketa, hotzeko ijezketa eta forjarako alanbroia eta altzairuzko barra fabrikatzeko jarduerarako. Eskaerarekin batera Legazpiko, Urretxuko eta Zumarragako Udalen aldeko hirigintza-txostenak (hurrenez hurren 2006ko abuztuaren 29koa, 2006ko martxoaren 3koa eta 2006ko apirilaren 25ekoa) bidali ditu sustatzaileak, eta ondorengo agiri teknikoak:

– «Oinarrizko proiektua Arcelor Zumarraga SA enpresaren ingurumeneko baimen bateratua lortzeko» (2006ko urria).

– «Laburpen ez-teknikoa» (2006ko urria).

Erreferentziako baimena eskatzeko unean, Arcelor Zumarraga SA enpresak, besteak beste, zabaltzeko 1996ko uztailaren 15eko baimena zuen. Halaber, enpresa sustatzaileak baimen hauek zituen: hondakin arriskutsuen ekoizlearen 2002ko urriaren 23ko baimena, eta ondorengo aldaketak eta handitzeak, hondakinen arloan indarrean den araudian xedatutakoari jarraiki; saneamendu-sarera isurketak egiteko 2003ko azaroaren 4ko baimena eta Urola ibaira hondakinurak isurtzeko baimena, 1993ko otsailaren 1ekoa, isurien arloan indarrean den araudian xedatutakoari jarraiki; atmosfera kutsa dezakeen instalazioaren 2003ko abenduaren 3ko ziurtagiriak, atmosferaren arloan indarrean den araudian xedatutakoari jarraiki.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACION DEL TERRITORIO

6495

RESOLUCIÓN de 30 de abril de 2008, del Viceconsejero de Medio Ambiente, por la que se concede autorización ambiental integrada para la actividad de fabricación de alambrón y barra de acero para trefilado, laminación en frío y forja promovida por Arcelormittal Zumarraga, S.A., en los términos municipales de Zumarraga, Urretxu y Legazpi (Gipuzkoa).

ANTECEDENTES DE HECHO

Con fecha 31 de octubre de 2006, Arcelor Zumarraga, S.A., solicitó ante el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco el otorgamiento de autorización ambiental integrada de conformidad con lo dispuesto en la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación, para la actividad de fabricación de alambrón y barra de acero para trefilado, laminación en frío y forja, en los términos municipales de Zumarraga, Urretxu y Legazpi (Gipuzkoa). La solicitud se acompañaba de informes urbanísticos favorables de los Ayuntamientos de Legazpi de 29 de agosto 2006, de Urretxu emitido el 3 de marzo de 2006 y de Zumarraga de 25 de abril de 2006, y de la siguiente documentación técnica:

– «Proyecto básico para la obtención de la Autorización Ambiental Integrada de Arcelor Zumarraga, S.A.» (octubre 2006).

– «Resumen no técnico» (octubre 2006).

En el momento de la solicitud de la autorización de referencia, Arcelor Zumarraga, S.A. tenía, entre otras, licencia de apertura, de fecha 15 de julio de 1996. Asimismo, la empresa promotora disponía de las correspondientes autorizaciones de productor de residuos peligrosos de fecha 23 de octubre de 2002, y posteriores modificaciones y actualizaciones de conformidad con lo dispuesto en la normativa vigente en materia de residuos; disponía de las correspondientes autorizaciones de vertido a la red de saneamiento de fecha 4 de noviembre de 2003 y autorización de vertido de aguas residuales al cauce del río Urola del 1 de febrero de 1993, de conformidad con lo dispuesto en la normativa vigente en materia de vertidos; disponía de las correspondientes certificaciones como instalación potencialmente contaminadora de la atmósfera, de fecha 3 de diciembre de 2003, de conformidad con lo dispuesto en la normativa vigente en materia de atmósfera.

2006ko azaroaren 14an, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran esku-hartzea duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, ingurumen organoaren bidez proiektuaren gaineko eraginaren azterlana jendaurrean jartzeko izapidetzea adosteari dagokionez. Zehazki Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, Zumarraga, Urretxu eta Legazpiko Udalei, eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioari kontsultatu zien.

2007ko otsailaren 7an eta 2007ko irailaren 26an, ingurumen organoak agiri osagarriak txertatzeko eskatu zion sustatzaileari, eta espedientea 2007ko azaroaren 26an osatu zen.

2007ko urriaren 10ean Arcelor Zumarraga SA enpresaren komunikazioa jaso zen, enpresaren izen soziala aldatu eta aurrerantzean Arcelormittal Zumarraga SA izena duela jakinarazteko.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumeneko sailburuordeak 2007ko abenduaren 17an emandako ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Arcelormittal Zumarraga SA enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2008ko urtarrilaren 23an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru egunkaritan argitaratu zen 2008ko urtarrilaren 27an, eta ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidetze-epea bete ondoren, alegazio-idazkirik aurkeztu ez zela egiaztatu zen.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko martxoaren 3an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Urretxu, Zumarraga eta Legazpiko Udalei, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2008ko apirilaren 15ean, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Arcelormittal Zumarraga SA enpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako ebazpen proposamena gehituz.

2008ko apirilaren 25ean sustatzailearen jakinarazpena jaso zen. Jakinarazpen hartan hainbat ohar egin ziren Ingurumeneko Baimen Bateratuaren ebazpen-proposamenari lotuta.

La Dirección de Calidad Ambiental con fecha 14 de noviembre de 2006 solicita informe a diversos órganos con intervención en el procedimiento en orden a que por el órgano ambiental se acuerde el trámite de información pública del proyecto, en concreto, se realiza consulta al Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco, los Ayuntamientos de Zumarraga, Urretxu y Legazpi y al Consorcio de Aguas de Gipuzkoa.

Con fechas 7 de febrero de 2007 y 26 de septiembre de 2007 el órgano ambiental requirió al promotor que incorporara documentación adicional, complementándose el expediente el 26 de noviembre de 2007.

Con fecha 10 de octubre de 2007 la empresa Arcelor Zumarraga, S.A. comunica que se ha producido la modificación de la razón social de la empresa pasando a denominarse Arcelormittal Zumarraga, S.A.

Una vez constatada la suficiencia de la documentación aportada, por resolución 17 de diciembre de 2007, del Viceconsejero de Medio Ambiente, se acuerda someter a información pública, por un periodo de 30 días hábiles, el proyecto promovido por Arcelormittal Zumarraga, S.A., en orden a la presentación de cuantas alegaciones se estimasen oportunas, procediéndose a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, con fecha de 23 de enero de 2008. Igualmente se procede al anuncio pertinente en tres periódicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco con fecha de 27 de enero de 2008 y a efectuar la oportuna notificación personal a los vecinos colindantes.

Una vez culminado el trámite de información pública, se constata que no se ha presentado alegación alguna.

En aplicación de lo dispuesto en los artículos 17 y 18 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, la Dirección de Calidad Ambiental solicita el 3 de marzo de 2008 informe a los Ayuntamientos de Urretxu, Zumarraga y Legazpi, al Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco y al Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, con el resultado que obra en el expediente.

Con fecha 15 de abril de 2008, y en aplicación del artículo 20 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación, el conjunto del expediente es puesto a disposición de Arcelormittal Zumarraga, S.A. incorporando la propuesta de resolución elaborada por el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

El día 25 de abril de 2008 se recibe comunicación del promotor en el que se formulan diversas consideraciones en relación con la propuesta de resolución de Autorización Ambiental Integrada.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoa betez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen direnak eta jarduera horrekin zerikusia dutenak.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Arcelormittal Zumarraga SA enpresak aurkeztutako proiektuaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen sortzaileak behar dituen baimenak, saneamendu-sare orokorrera isurketak egiteko baimena eta ubide publikora isurketak egiteko baimena; eta ingurumen izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta hari aurre hartzeari dagozkionak. Espedientean parte hartzen dutela frogatzeko, beste administrazio eta erakunde eskudunek egindako txostenak aurkeztuko dituzte.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuak aurreikusten duen jarduera sailkatuetarako udal-baimenaren prozedura ordezkatzen du; ez du ordezkatzen, ordea, udal

FUNDAMENTOS DE DERECHO

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 1 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, constituye el objeto de la misma evitar o, cuando ello no sea posible, reducir y controlar la contaminación de la atmósfera, del agua y del suelo, mediante el establecimiento de un sistema de prevención y control integrado de la contaminación, con el fin de alcanzar una elevada protección del medio ambiente en su conjunto.

En consonancia con lo dispuesto en el artículo 3 del Real Decreto 509/2007, de 20 de abril, por el que se aprueba el Reglamento para el desarrollo y ejecución de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación, se integran en la presente autorización todos los elementos y líneas de producción que aún sin estar enumerados en el anexo 1 de la Ley 16/2002, se desarrollen en el lugar del emplazamiento de las instalaciones cuya actividad motivó su inclusión en el ámbito de aplicación de dicha Ley, y guarden relación técnica con dicha actividad.

En aplicación de lo dispuesto en el artículo 9 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, se somete a autorización ambiental integrada la construcción, montaje, explotación o traslado, así como la modificación sustancial, de las instalaciones en las que se desarrollen alguna de las actividades incluidas en el anejo 1. La presente autorización mantiene como finalidad básica, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 11, la fijación de todas aquellas condiciones que garanticen el cumplimiento del objeto de la norma por parte de las instalaciones incluidas en su ámbito de aplicación, a través de un procedimiento que asegure la coordinación de las distintas Administraciones Públicas que deben intervenir en la concesión de dicha autorización para agilizar trámites y reducir las cargas administrativas de los particulares, a la par que viene a integrar en un solo acto de intervención administrativa las autorizaciones ambientales previstas en la legislación en vigor. En el caso del proyecto presentado por Arcelormittal Zumarraga, S.A., tales autorizaciones se circunscriben a la de productor de residuos peligrosos y no peligrosos, vertidos a la red general de saneamiento, vertidos a cauce público y, entre otras determinaciones de carácter ambiental, las referidas a la materia de contaminación atmosférica, y en materia de prevención y corrección de la contaminación del suelo, constatando la participación en el expediente a través de la emisión de los preceptivos informes, de otras administraciones y organismos competentes.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 29 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, el procedimiento para el otorgamiento de autorización ambiental integrada sustituye al procedimiento para el otorgamiento de la licencia municipal de actividades clasificadas prevista en el Decreto 2414/1961, de 30 de noviembre, sobre Actividades Molestas, Insalubres, Nocivas y Peli-

agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita aipatu arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak.

Transkribatutako aginduak aplikatuz, Arcelormittal Zumarraga SA enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Zumarraga, Urretxu eta Legazpiko Udalen eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien muga-balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, Ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri onenak eta aplikatzekoa den alorreko legerian ezarritako neurriak eta baldintzak. Bereziki, BREF agiri hauen edukiak hartu dira kontuan: altzairuaren sektorerako «Best Available Techniques Reference Document on the Production of Iron and Steel», 2001eko abendukoa, eta «Reference Document on Best Available Techniques in the Ferrous Metals Processing Industry», 2001eko abendukoa.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen proposamena sinatu eta Arcelormittal Zumarraga SA enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta uztailaren 1eko 16/2002 Legearen, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoaren 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da. Ildo horretan, kontuan hartu behar da organo honi atxikitako zerbitzu teknikoek sustatzaileak izapidetze honetan egindako oharrak aztertu dituztela, eta guztiak kontuan hartu direla Ebazpen hau lantzeko.

Organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako legearen 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

grosas, salvo en lo referente a la resolución definitiva de la autoridad municipal. A estos efectos la autorización ambiental integrada, será, en su caso, vinculante para la autoridad municipal cuando implique la denegación de licencias o la imposición de medidas correctoras, así como en lo referente a aspectos medioambientales recogidos en el artículo 22 de la mencionada norma. Afirma el citado artículo 29 que lo anteriormente dispuesto se entiende sin perjuicio de las normas autonómicas sobre actividades clasificadas que en su caso fueran aplicables.

En aplicación de las prescripciones transcritas, el procedimiento de autorización ambiental integrada referido a Arcelormittal Zumarraga, S.A. ha incluido el conjunto de trámites previstos al efecto en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, incorporándose, con el resultado que obra en el expediente, los informes de los Ayuntamientos de Zumarraga, Urretxu y Legazpi y del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco.

Por último, en orden a determinar los valores límites de emisión de las sustancias contaminantes que puedan ser emitidas por la instalación, así como otras condiciones para la explotación de la misma a fin de garantizar una elevada protección del medio ambiente en su conjunto, en la formulación de la presente Resolución se ha tenido en cuenta tanto el uso de las mejores técnicas disponibles como las medidas y condiciones establecidas por la legislación sectorial aplicable. En particular se han considerado el contenido de los documentos BREF para el sector del acero «Best Available Techniques Reference Document on the Production of Iron and Steel» de diciembre de 2001, y «Reference Document on Best Available Techniques in the Ferrous Metals Processing Industry» de diciembre de 2001.

Una vez analizados los informes obrantes en el expediente se suscribió propuesta de resolución, a la que se incorporaron las condiciones aplicables al proyecto promovido por Arcelormittal Zumarraga, S.A.

Culminadas, de acuerdo con lo expuesto, las tramitaciones arriba referidas, se ha cumplido el trámite de audiencia contemplado en el artículo 20 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación. En este sentido, debe tenerse en cuenta que por los servicios técnicos adscritos a este órgano se ha procedido al análisis de las consideraciones realizadas por el promotor en este trámite, habiéndose tenido en cuenta las mismas en la elaboración de la presente Resolución.

Considerando la competencia de este órgano para la concesión de la presente autorización ambiental integrada de conformidad con lo previsto en el artículo 13 de la mencionada norma y el artículo 9 del Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2008ko apirilaren 14an emandako ebazpen proposamena; otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzkoa; 16/2002 Legea, uztailaren 1ekoa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua, Legea burutzeko araudia onartzen duena; urriaren 25eko 340/2005 Dekretua, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duena; azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta aplikatzeko den gainerako araudia,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Helbide soziala Zumarragako (Gipuzkoa) udalerriko Artiz auzoko z./g.an eta IFK: A-28032381 duen Arcelormittal Zumarraga SA enpresari trefilaketa, hotzeko ijezketa eta forjarako alanbroia eta altzairuzko barra fabrikatzeko jarduerarako ingurumeneko baimen bateratua ematea, Ebazpen honen bigarren atalean ezarritako baldintzei jarraituz.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskinean jasota dago. Hain zuzen ere 2.2 kategorian, «Galdaragintza edo altzairu gordinen instalazioak (lehen edo bigarren mailako galdatzea), orduko 2,5 tona baino gehiago ekoizten dituzten galdaketa jarraikiko instalazioak barne», eta 2.3.a) kategorian, «Orduko 20 tona altzairu gordin baino gehiago beroan ijezteko ahalmena dutenak».

Arcelormittal Zumarraga SA enpresa Zumarragako (Gipuzkoa) udalerriko Artiz auzoko z./g.an dago. Lursailaren neurri orokorra 357.289 m²-koa da, horietatik 317.741 m² Zumarragako udalerrikoak dira, 30.695 m² Urretxuko udalerrikoak, eta 8.853 m² Legazpiko udalerrikoak. Proiektuko jarduketa guztiak aipatutako lur zatian gauzatuko dira.

Jarduera trefilaketa, hotzeko ijezketa eta forjarako alanbroia eta altzairuzko barra fabrikatzea da. Instalazioaren ekoizte-gaitasuna 561.492 t/urte alanbroi, barra eta garret da.

120 t-ko edukiera eta 4. zuloa dituen labean txatarra sartu ondoren, txatarra beste lehengai batzuekin galdatu eta altzairu likidoa eta zepa lortzen dira. Bainuan nahi ez diren elementuen oxidazioa oxigeno-

Vistos la propuesta de resolución de 14 de abril de 2008 del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación, el Real Decreto Legislativo 1302/1986, de 28 de junio, de Evaluación de Impacto Ambiental, modificado por la Ley 6/2001, de 8 de mayo, por la que se modifica el anterior, el Real Decreto 1131/1988, de 30 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento para su ejecución, el Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y demás normativa de aplicación,

RESUELVO:

Primero.– Conceder a la empresa Arcelormittal Zumarraga, S.A., con domicilio social en Barrio Artiz s/n, del término municipal de Zumarraga (Gipuzkoa) y CIF: A-28032381, Autorización Ambiental Integrada de la actividad de fabricación de alambrón y barra de acero para trefilado, laminación en frío y forja, en los términos municipales de Urretxu, Zumarraga y Legazpi con las condiciones establecidas en el apartado Segundo de esta Resolución.

La actividad se encuentra incluida en la categoría 2.2 «Instalaciones para la producción de fundición o de aceros brutos (fundición primaria o secundaria), incluidas las correspondientes instalaciones de fundición continua de una capacidad de más de 2,5 toneladas por hora» y 2.3.a) «Laminado en caliente con una capacidad superior a 20 T. de acero bruto por hora» del anexo 1 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación.

La empresa Arcelormittal Zumarraga, S.A. se ubica en la calle Barrio Artiz s/n en el Término Municipal de Zumarraga (Gipuzkoa). La dimensión general del terreno es de 357.289 m², de los cuales 317.741 m² pertenecen al término municipal de Zumarraga, 30.695 m² al término municipal de Urretxu y 8.853 m² al término municipal de Legazpi. Todas las actuaciones del proyecto tendrán lugar en la citada parcela.

La actividad se centra en la fabricación de alambrón y barra de acero para trefilado, laminación en frío y forja. La capacidad de producción de la planta se estima en 561.492 Tm/año de alambrón, barras y garret.

Una vez incorporada la chatarra al horno de 120 T de capacidad y con 4 º agujero, se realiza la fusión de la chatarra junto con otras materias primas, obteniéndose acero líquido y escoria. La

injekzio bidez errazten da. Ondoren, altzairua zalira pasatzen da.

Fintzea oxigeno-eduki baxuko metala lortu eta S2 gehiena ezabatzea da. Likido galdatua fintzeko labera pasatzen da, eta hor gehigarriak eta ferroaleazioak gehitzen dira eskatutako propietateak eta kalitateak lortzeko. Labeko zalira iraultzeko eremuan manpara bat jarri da, galdaren transferentzian gertatzen diren isuriak biltzeko.

Konposizioa eta tenperatura doitu ondoren, totxo bihurtzen da zazpi lerroko galda jarraikiko unitate batean. Altzairua solidotzea kobrezko lingote-ontzietan hasten da, urez hoztuta. Xurgatze-sistema bat eta canopy bat daude prozesuan sortutako isuriak biltzeko eta mahuka-iragazki batera eramateko.

Prozesuak ebaketa-lerroan segitzen du (oxiebaketa-lantza), eta ezarritako neurria duten totxoak sortzen dira. Jarraian ijezte-prozesu bat izaten dute, eta totxoak tenperatura egokian berotzen dira (1.100º C) gas naturaleko labe batean. Ondoren totxoa arbastatu eta ijezten da, sekzio-murrizketa batzuk aplikatuz.

Azkenik, produktu bukatua akabatu, enbalatu eta bidali egiten da.

Sare bereizi bat dago, ur sanitarioak Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren kolektorera, eta industria-urak, euri-urak eta neutralizazioko urak Urola ibaiaren ibilgura eramateko.

Proiektuak, besteak beste, teknika erabilgarri onenak (TEO) izan daitezkeen ondorengo neurriak hartzen ditu barne: isuriak biltzeko sistema, 4. zuloaren eta canopyaren bidez; bi mahuka-iragazki partikula solidoetarako fintzeko eta galdatzeko zirkuituetan; errekuntza ondorengo ganbera; olio- eta koipe-bereizgailua araztegi orokorrean; birsortzeko sistema duten erregailuak; urezko piten eraztun bateko instalazioa, 150 kg-ko presiokoa, desugertu beharreko materialaren neurriak kontrolatzeko automatikoki erregulatua, eta hozteko instalazioa akabera-trenean, ur-espraien bidezkoa.

Bigarrena.– Arcelormittal Zumarraga SA enpresak Zumarraga, Urretxu eta Legazpiko (Gipuzkoa) udalerrietan trefilaketa, hotzeko ijezketa eta forjarako alanbroia eta altzairuzko barra fabrikatzeko instalaziorako ondorengo baldintzak eta eskakizunak jartzea:

A) Zabortegirako fidantza bat aurkeztuko da, zigilatu beharreko azalera bider metro koadroko zigilatzearen kostu unitarioaren baliokidea (gutxieneko prezio balioetsia 60 euro/m²) izango dena.

oxidación de los elementos no deseables del baño se facilita mediante inyección de oxígeno. Tras ello, el acero pasa a la cuchara.

El afino consiste en obtener un metal bajo en oxígeno y eliminar la mayor parte de S2. El líquido fundido pasa al horno de afino donde se añaden aditivos y ferroaleaciones para conseguir las diferentes propiedades y calidades requeridas. En la zona de vuelco a cuchara del horno se ha colocado una mampara para captar las emisiones que tienen lugar durante la transferencia del caldo.

Tras el ajuste de composición y temperatura, se procede a la transformación en palanquilla en una unidad de colada continua que dispone de siete líneas. La solidificación del acero comienza en las lingoteras de cobre y refrigeradas por agua. Se dispone de un sistema de aspiración y un cannopy que captan las emisiones generadas en el proceso y las conducen a un filtro de mangas.

El proceso continúa en la línea de corte (lanza de oxicorte), dando lugar a palanquillas con la medida establecida. Posteriormente se someten a un proceso de laminación donde se calientan las palanquillas a una temperatura adecuada (1.100º C) en un horno de gas natural. Seguidamente se procede al desbaste de la palanquilla y al laminado, aplicando una serie de reducciones de sección.

Por último se llevan a cabo las operaciones de acabado, embalaje y expedición del producto terminado.

Se dispone de red separada de aguas sanitarias con destino a colector del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa y aguas industriales, pluviales y aguas de neutralizado con destino al cauce del río Urola.

El proyecto incorpora, entre otras las siguientes medidas que pueden considerarse Mejores Técnicas Disponibles (MTDs): sistema de captación de emisiones, a través del 4 º agujero y canopy, dos filtros de mangas para partículas sólidas en los circuitos de afino y de fusión, cámara de postcombustión, separador de aceites y grasas en la depuradora general, quemadores con sistema de regeneración, instalación de un anillo de boquillas de agua de 150 kg de presión regulado automáticamente para el control de las dimensiones del material a descascarillar e instalación de refrigeración en el tren de acabado basado en sprays de agua.

Segundo.– Imponer las siguientes condiciones y requisitos para la planta de fabricación de alambrón y barra de acero para trefilado, laminación en frío y forja promovida por Arcelormittal Zumarraga, S.A., en los términos municipales de Zumarraga, Urretxu y Legazpi (Gipuzkoa):

A) Se presentará una fianza para el vertedero cuya cuantía sea equivalente a la superficie a sellar multiplicada por el coste unitario de sellado por metro cuadrado (precio mínimo estimado en 60 euros/m²).

Sustatzaileak fidantza horren zenbatekoa txikitzea eskatu ahal izango du itxiera-planaren arabera, eta fidantza horren gutxieneko zenbatekoak bat etorri beharko du ustiapen-planean aurreikusitako zigilatze-azalera handienaren (horren benetako tamainan neurtua, ez proiekzio horizontalean) kontratako burutze-kostuarekin, eta itxi ondorengo mantentze-lanen kostuarekin 30 urtean zehar.

B) Arcelormittal Zumarraga SA enpresak 600.000 euroko erantzukizun zibileko aseguru bat sinatuko du, horren instalazioetako zabortegitik sor litezkeen betebeharrei erantzuteko.

C) Arcelormittal Zumarraga SA enpresak Administrazioarekiko harremanez arduratuko den goi-mailako tituludunari buruz emandako edozein daturen aldaketen berri emango dio Ingurumeneko Sailburuordetzari.

D) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala burutuko dira, indarrean den araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

D.1.– Instalazioaren funtzionamendurako baldintza orokorrak.

D.1.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

D.1.1.1.– Baldintza orokorrak.

Arcelormittal Zumarraga SA enpresaren instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isuriek ez dituzte Ebazpen honetan ezarritako balioak gainditukо.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango gai kutsatzaileak mugarik gabe isuri eta horiek biltzea teknikoki edo ekonomikoki bideragarria ez denean, edota ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabean gai kutsatzailerik ez botatzeko, eta botatzen direnak giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

El promotor podrá solicitar una reducción en la cuantía de esta fianza sobre la base del plan de clausura debiendo la cuantía mínima de dicha fianza corresponder al coste de ejecución por contrata de la superficie de sellado más grande (medida en su verdadera magnitud, no en proyección horizontal) prevista en el plan de explotación y al coste del mantenimiento post-clausura durante 30 años.

B) Arcelormittal Zumarraga, S.A. procederá a la suscripción de un seguro de responsabilidad civil por importe de 600.000 euros en orden a atender las obligaciones que pudieran derivarse del vertedero existente en sus instalaciones.

C) Arcelormittal Zumarraga, S.A. remitirá a la Viceconsejería de Medio Ambiente cualquier modificación de los datos facilitados respecto al titulado superior responsable de las relaciones con la Administración.

D) Las medidas protectoras y correctoras se ejecutarán de acuerdo con lo previsto en la documentación presentada por el promotor ante esta Viceconsejería de Medio Ambiente, de acuerdo a la normativa vigente y con lo establecido en los apartados siguientes:

D.1.– Condiciones generales para el funcionamiento de la instalación.

D.1.1.– Condiciones para la protección de la calidad del aire.

D.1.1.1. – Condiciones generales.

La planta de Arcelormittal Zumarraga, S.A. se explotará de modo que, en las emisiones a la atmósfera, no se superen los valores límite de emisión establecidos en esta Resolución.

Toda emisión de contaminantes a la atmósfera generada en el proceso deberá ser captada y evacuada al exterior por medio de conductos apropiados previo paso, en su caso, por un sistema de depuración de gases diseñado conforme a las características de dichas emisiones.

Podrán exceptuarse de esta norma general aquellas emisiones no confinadas cuya captación sea técnica y/o económicamente inviable o bien cuando se demuestre la escasa incidencia de las mismas en el medio.

Se tomarán las disposiciones apropiadas para reducir la probabilidad de emisiones accidentales y para que los efluentes correspondientes no presenten peligro para la salud humana y seguridad pública. Las instalaciones de tratamiento de los efluentes gaseosos deberán ser explotadas y mantenidas de forma que hagan frente eficazmente a las variaciones debidas a la temperatura y composición de los efluentes. Asimismo se deberán reducir al mínimo la duración de los periodos de disfuncionamiento e indisponibilidad.

D.1.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Arcelormittal Zumarraga SA enpresaren instalazioak ondorengo fokuak ditu, atmosferaren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

Foku-zenbakia	Foku-kodea	Isurtze-fokuaren izena	Garaiera (m)	Diametroa (m)	Katalogazioa. Taldea	UTM koordenatuak	
						X	Y
1	20001725-01	FE01-Altzairutegiko hauts-xurgapena	28	4	A	555124	4769984
2	20001725-02	FE02-Altzairutegiko hauts-xurgapena	28	4	A	555114	4769988
3	20001725-03	FE03-Totxoa berotzeko labea (3. trena)	37,6	2,38	C	555252	4770380
4	20001725-04	FE04-Totxoa berotzeko labea (2. trena)	40	2,84	C	555278	4770542
5	20001725-05	FE05-Ijezketako ke-xurgapena	23,38	2,545	B	555376	4770687
6	20001725-D	Soplete bidezko ebaketako xurgapena	15	0,4	Ez-sistematikoa	553.010	4.770.532

Gainera, altzairutegi-pabiloiaren barrualdera isurtzen diren isuri barreiatuak sortzen dira (urtzeko labea, fintzea eta zaliak berotzea). Isuri horien zati handiena pabiloiaren sabaian jarritako xurgatze-sistemak (canopya) biltzen du, eta ondoren keak arazteko instalaziora eramaten dira.

D.1.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurketek ez dituzte isurtzeko muga-balio hauek gainditukо:

D.1.1.2.– Identificación de los focos. Catalogación.

La instalación de Arcelormittal Zumarraga, S.A. cuenta con los siguientes focos, catalogados de acuerdo con la normativa vigente en materia de la atmósfera:

N.º foco	*Código del Foco*	*Denominación foco de emisión*	*Altura (m)*	*Diámetro (m)*	*Catalogación. Grupo*	*Coordenadas UTM*	
						X	*Y*
1	*20001725-01*	*FE01-Aspiración polvo acería*	*28*	*4*	*A*	*555124*	*4769984*
2	*20001725-02*	*FE02-Aspiración polvo acería*	*28*	*4*	*A*	*555114*	*4769988*
3	*20001725-03*	*FE03-Horno de calentamiento palanquilla (Tren n.º 3)*	*37,6*	*2,38*	*C*	*555252*	*4770380*
4	*20001725-04*	*FE04-Horno de calentamiento palanquilla (Tren n.º 2)*	*40*	*2,84*	*C*	*555278*	*4770542*
5	*20001725-05*	*FE05-Aspiración humos de laminación*	*23,38*	*2,545*	*B*	*555376*	*4770687*
6	*20001725-D*	*Aspiración de corte con soplete*	*15*	*0,4*	*No sistemático*	*553.010*	*4.770.532*

Además se generan emisiones difusas que se emiten al interior de la nave de Acería (horno de fusión, afino y calentamiento cucharas). Estas emisiones son en su mayor parte recogidas por el sistema de aspiración (cannopy) colocado en el techo de la nave, y posteriormente conducidas a la instalación de depuración de humos.

D.1.1.3. - Valores límites de emisión.

La planta se explotará de modo que, en las emisiones a la atmósfera, no se superen los siguientes valores límite de emisión:

Fokua (k)	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
1. fokua	Partikulak	20 mg/Nm^3
	CO	500 ppm
	NOx	300 ppm

Fokua (k)	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
2. fokua	Partikulak	20 mg/Nm^3
	CO	500 ppm
	NOx	300 ppm
3. fokua	CO	500 ppm
	NOx	400 mg/Nm^3 (% 3 O2)
	Partikulak	150 mg/Nm^3
4. fokua	CO	500 ppm
	NOx	400 mg/Nm^3 (% 3 O2)
	Partikulak	150 mg/Nm^3
5. fokua	CO	500 ppm
	NOx	400 mg/Nm^3 (% 3 O2)
	Partikulak	150 mg/Nm^3

Foco (s)	*Sustancias*	*Valores límite de emisión*
Foco n.º1	*Partículas*	*20 mg/Nm^3*
	CO	*500 ppm*
	NOx	*300 ppm*
Foco n.º2	*Partículas*	*20 mg/Nm^3*
	CO	*500 ppm*
	NOx	*300 ppm*
Foco n.º3	*CO*	*500 ppm*
	NOx	*400 mg/Nm^3 (3% O2)*
	Partículas	*150 mg/Nm^3*
Foco n.º4	*CO*	*500 ppm*
	NOx	*400 mg/Nm^3 (3% O2)*
	Partículas	*150 mg/Nm^3*
Foco n.º5	*CO*	*500 ppm*
	NOx	*400 mg/Nm^3 (3% O2)*
	Partículas	*150 mg/Nm^3*

Isurtzeko muga-balioak baldintza hauei buruzkoak dira: 273 K-eko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa eta gas lehorra.

Gehienez onar daitezkeen balioek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditu arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40a gainditzen duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gainditu gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi horretako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25a gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren

Los valores límite de emisión están referidos a las siguientes condiciones: 273 K de temperatura y 101,3 kPa de presión y gas seco.

Los parámetros medidos no superarán los valores límite de emisión en inspecciones periódicas reglamentarias (tres medidas de una hora cada una, como mínimo) medidos a lo largo de ocho horas. Se admitirá como tolerancia de medición que puedan superar en el 25% de los casos en una cuantía que no exceda del 40%. De rebasarse esta tolerancia, el periodo de mediciones se prolongará durante una semana, admitiéndose, como tolerancia global de este periodo, que puedan superarse los niveles máximos admisibles en el 6% de los casos en una cuantía que no exceda el 25%. Estas tolerancias se entienden sin perjuicio de

eraginpeko zonaldean ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

Etengabe neurtutako parametroei dagokienez, isurtzeko muga-balioak betetzen direla ulertuko da, urtebetean neurtutako orduko batez besteko balio egiaztatuen % 94k ezarritako muga gainditzen ez badu.

Konfiantza-tartearen balioak 100eko 95ean, isurketarako gehienezko balioetan, ez ditu isurtzeko muga-balioaren portzentaje hauek gaindituko: karbono monoxidoa, sufre dioxidoa eta nitrogeno dioxidoa, % 25; partikulen guztizkoak eta karbono organikoaren guztizkoa, % 30; hidrogeno kloruroa eta hidrogeno fluoruroa, % 40.

Orduko batez besteko balio egiaztatuak benetako ustiapen-epean zehar zehaztuko dira, orduko batez besteko baliozko balioak oinarri hartuta, eta horiek lehen zehaztutako konfiantza-tartea kendu ondoren neurtuta.

Erregistro-denbora ez-baliozkotzat jotzen dira neurketa-ekipoen mantentze-lanak, matxurak edo funtzionamendu okerra.

D.1.1.4.– Gasak bildu eta husteko sistema.

Fokuetako gas-hondarrak kanporatzeko tximiniek ez dute D.1.1.2 atalean jasota dagoen goreneko kota baino baxuagoa izango. Tximinietan behar beste neurri hartuko dira, Industria Ministerioak industriak atmosferan eragiten duen kutsadurari aurrea hartu eta hori zuzentzeari buruz 1976ko urriaren 18an emandako Agindua bete dezaten; besteak beste, laginak hartzeko puntuetara iristeko sarbide seguru eta errazak izango dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein perturbazio izan dezakeen gunera bitarteko distantziak (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute. L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetarako inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliotasuna justifikatzea eskatuko da.

Zehazki, sarbide, plataforma eta baranda-kontuetan, eta tximiniak eta isurtzeko hodiak egokitzeko gaietan, kontuan izan beharko da isuriak neurtzeko sistema jarraikiak kalibratzeko instrukzio teknikoan ezarrita dagoena; ikuskarientzako segurtasun-bermea izan beharko dute.

que en ningún momento los niveles de inmisión en la zona de influencia del foco emisor superen los valores higiénicamente admisibles.

En lo que se refiere a los parámetros medidos en continuo, se considerará que se cumplen los valores límite de emisión si el 94% de los valores medios horarios validados a lo largo de un año no supera el valor límite establecido.

El valor del intervalo de confianza al 95 por 100, determinado en los valores máximos de emisión no superará los porcentajes siguientes de valor límite de emisión: monóxido de carbono, dióxido de azufre y dióxido de nitrógeno, 25 por 100; partículas totales y carbono orgánico total, 30 por 100; cloruro de hidrógeno y fluoruro de hidrógeno, 40 por 100.

Los valores medios horarios validados se determinarán durante el plazo de explotación efectivo a partir de los valores medios por hora válidos, medidos tras sustraer el valor del intervalo de confianza especificado anteriormente.

Se consideran como tiempo de registro no válidos los de mantenimiento, avería o funcionamiento incorrecto de los equipos de medición.

D.1.1.4.– Sistema de captación y evacuación de gases.

Las chimeneas de evacuación de los gases residuales de los focos alcanzarán una cota de coronación, no inferior a la establecida en el apartado D.1.1.2. Las chimeneas dispondrán de los medios necesarios para el cumplimiento de las condiciones exigidas en la Orden del Ministerio de Industria, de 18 de octubre de 1976, sobre prevención y corrección de la contaminación atmosférica de origen industrial permitiendo, entre otros, accesos seguros y fáciles a los puntos de toma de muestras.

En particular, en lo que se refiere a la localización y características de los orificios previstos para la toma de muestras, las distancias del punto de muestreo a cualquier perturbación del flujo gaseoso antes del punto de medida según la dirección del flujo y dirección contraria (parámetros L1 y L2) deberán ajustarse a lo dispuesto en el anejo III de la Orden de 18 de octubre de 1976. Para los focos en los que no se cumplan las distancias de L1 ≥ 8D y L2 ≥ 2D, nunca se admitirán valores de L1 < 2D y L2 < 0,5D. En estos casos se exigirá que en el informe de mediciones se justifique validez del plano de muestreo.

En particular para el tema de los accesos, plataformas, barandillas, etc. y otros acondicionamientos de las chimeneas y conductos de emisión, deberán tener en cuenta lo concretado en la instrucción técnica para el calibrado de sistemas de medida en continuo de emisiones, debiendo contar con la garantía de seguridad para el personal inspector.

Halaber, neurketa eta irakurketa ofizialak aldez aurretik abisatu gabe egiteko beharrezko gutxienekoak izango dituzte (argindarra eta beste batzuk).

Arestian adierazi den bezala, isuri barreiatuak minimizatzearren, altzairutegiko pabiloiaren sabaian jarritako xurgatze-sistema (canopya) bat dago, eta ondoren keak arazteko instalaziora eramaten dira.

D.1.2.– Ibilgura isurtzeko baldintzak.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: burdinaren, altzairuaren eta ferroaleazioen oinarrizko produktuak fabrikatzea.

Jarduera-taldea: metala.

Mota-taldea-EJSN: 1. mota-2.taldea-EJSN 27.10.

D.1.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Asimismo, deberán contar con los mínimos necesarios (fuerza eléctrica y otros) para que puedan practicarse sin previo aviso las mediciones y lecturas oficiales.

Tal y como se ha señalado anteriormente con objeto de minimizar las emisiones difusas se dispone de sistema de aspiración (cannopy) colocado en el techo de la nave de Acería, para posteriormente ser conducidas a la instalación de depuración de humos.

D.1.2.– Condiciones para el vertido a cauce.

Tipo de actividad principal generadora del vertido: Fabricación de productos básicos de hierro, acero y ferroaleaciones.

Grupo de actividad: metal.

Clase-grupo-CNAE: clase 1-Grupo 2-CNAE 27.10.

D.1.2.1.– Clasificación, origen, medio receptor y localización de los vertidos.

Isurketa-puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Arro hidrografikoa	Ingurune hartzailearen kategoria	UTM koordenatuak
PV 1	Euri-urak	Ijezketa-pabiloian bildutako euri-urak	Urola ibaia	Urola	I	X: 555085 Y: 4769981
PV 2	Euri-urak	Altzairutegi-pabiloian bildutako euri-urak	Urola ibaia	Urola	I	X: 555112 Y: 4770019
PV 3	Industria-urak	Hondakin geldoen zabortegiko perimetral, jariatze eta lixibiatuetan bildutako ura	Urola ibaia	Urola	I	X: 555173 Y: 4769994
PV 4	Euri-urak	Instalazioan bildutako euri-urak	Urola ibaia	Urola	I	X: 555217 Y: 4770505
PV 5	Euri-urak	Instalazioan bildutako euri-urak	Urola ibaia	Urola	I	X: 555254 Y: 4770584
PV 6	Euri-urak	Instalazioan bildutako euri-urak	Urola ibaia	Urola	I	X:555357 Y: 4770718
PV 7	Industria-urak	Altzairutegiko hozteko uren andela hustea	Urola ibaia	Urola	I	X: 555116 Y: 4770008
PV 8	Industria-urak	Ijezketako hozteko uren andela hustea	Urola ibaia	Urola	I	X: 555214 Y: 4770501

Punto de Vertido	*Tipo de aguas residuales*	*Procedencia del vertido*	*Medio receptor*	*Cuenca hidrográfica*	*Categoría del medio receptor*	*Coordenadas UTM*
PV 1	*Aguas pluviales*	*Aguas pluviales recogidas de la nave de laminación*	*Río Urola*	*Urola*	*I*	*X: 555085 Y: 4769981*
PV 2	*Aguas pluviales*	*Aguas pluviales recogidas de la nave de acería*	*Río Urola*	*Urola*	*I*	*X: 555112 Y: 4770019*
PV 3	*Aguas industriales*	*Agua procedente de la recogida de los perimetrales, escorrentías y lixiviados del vertedero de residuos inertes.*	*Río Urola*	*Urola*	*I*	*X: 555173 Y: 4769994*

